

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**375/2025 Foru Agindua, uztailaren 1eko. Behin betiko onesprena ematea Gaubeako udalerriko Villanañeko AI-R01, AI-R02, AI-R03, AI-R04, AI-R09, AI-R10 eta AI-R-11 eremuko hiri antolamendurako plan bereziaren expedienteari**

Udalatzaren 2023ko maiatzaren 26ko erabaki baten bidez, hasierako onesprena eman zi-tzaion hiri antolamendurako plan bereziari buruzko expedienteari, kasuan kasuko eremuaren antolamendu xehatua aldatzeko Gaubeako udalerriko Villanañeko AR-18 (a) eremuko AI-R01, AI-R02, AI-R03, AI-R04, AI-R09, AI-R10 eta AI-R11 hiri antolamendurako plan orokorreko (HAPO) jarduketa integratuekin. Expedientea jendaurrean jarri zen, eta horretarako iragarkiak jarri ziren 2023ko ekainaren 14ko ALHAOn (69. zk.), 2023ko ekainaren 8ko El Correo egunkarian eta udaleko iragarki taulan.

Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Udalak, 2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran, behin-behineko onesprena eman zion expedienteari.

Hiri antolamendurako plan bereziaren (HAPB) hirigintza prozedura izapidetzearekin batera, ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozedura izapidetu zen, eta ingurumen txosten estrategikoa eman da, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren abenduaren 20ko 264/2023 Foru Aginduaren bidez (ALHAOn 2023ko abenduaren 27an argitaratuta, 149. zenbakian).

Hirigintza plangintzako plataformaren bidez, 2024ko ekainaren 20an sartu zen AFaren erre-gistroan Gaubeako Udalak bidalitako HAPBaren expedientea, behin betiko onets zedin.

Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, 2024ko abuztuaren 8an, AFAKo Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak errekerimendu bat egin zion Gaubeako Udalari, hauteman-dako akatsak zuzentzeko.

2024ko azaroaren 14an, Arabako Foru Aldundiaren erregistroan idazki bat sartu zen, Hirigintza Plangintzako Plataformaren bidez, esanez Gaubeako Udalak partez bete zuela errekerimendua. Hala ere, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena falta zenez, AFAs bigarren errekerimendu bat egin zuen 2024ko azaroaren 20an.

2025eko maiatzaren 22an, Gaubeako Udalak expediente honi buruzko dokumentazio guztia aurkeztu du AFaren erregistroan, Hirigintza Plangintzako plataformaren bidez.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

#### Lehenengo.- Xedea

Gaubeako Udalak sustatutako expediente honen xedea da aldatzea Gaubeako HAPOaren antolamendu xehatuko zenbait zehaztapen, AI-R01, AI-R02, AI-R03, AI-R04, AI-R09, AI-R10 eta AI-R11 jarduketa integratuak osatzen dituzten eremuari dagokionez; hau da, 14-197, 14-198, 14-199, 14-452, 14-453, 14-454, 14-455, 14-456, 14-465, 14-466 lurzatiak eta 14-200-B azpilurzatia eta erreka igarotzen den bideen tokiko bide sistema. Eremua Villanañeko AR18a bizitegi arean sartuta dago, eta urbanizazioak finkatu ez duen hiri lurzoruan dago. Kalifikazio orokorrari dago-kionez, B-bizitegitarako azpizona dagokio. Kalifikazio xehatuari dagokionez, 3 azpizona daude: Familia bakarreko etxebizitza atxikia, bideen tokiko sistema eta espazio libreen tokiko sistema.

**Bigarrena.- Udal plangintza**

Gaubeako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra abuztuaren 11ko 195/2020 Foru Aginduaren bidez onetsi zen behin betiko, eta haren araudia 2020ko irailaren 16ko ALHAOn (105. zk.) argitaratu ondoren jarri zen indarrean.

**Hirugarrena.- Proposatutako antolamendua**

Formulatzen den HAPBak antolamendu xehatuko zehaztapen hauek aldatzen ditu:

— HAPOak antolatutako bideen tokiko sistema sortu berria kentzea. Akats baten ondorioz, antolamenduaren xede diren lursailetatik igarotzen den errekaren jabari publiko hidraulikoaren gainean zegoen. Horren ordez, espazio libreen tokiko sistema bat sortzen da. Errekaren ondoko berdegune jarraitua denez, espazio publikoen antolamendua hobetzen du.

— AR18a bizitegi arean dauden jarduketak (AI-R01, AI-R02, AI-R03, AI-R04, AI-R09, AI-R10 eta AI-R11) ordezten dituzten 2 jarduketa integratu mugatzea (AI-R01 y AI-R02). Jarduketa integratu berri bakoitza egikaritze unitate (EU) batek osatzen du.

— Kalifikazio xehatua eta eraikuntza tipologia aldatzea, eta indarrean dagoen “familia bakarreko etxe atxikia” izan beharrean “familia bakarreko etxe isolatua” izango da.

— Jarduketa integratu horien mugaketatik kanpo uztea 14-200. B lurzatia.

Lurzoruan eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera (LHL), proposatutako aldaketak antolamendu xehatuaren berezko zehaztapenak dira; izan ere, jarduketak tokiko sistemei (56.1.a artikulua), jarduketa integratuei (56.1.b artikulua) eta hiri lurzoru finkatugabeari (56.1.c artikulua) dagozkie, lurzati bakoitzerako eraikigarritasun fisiko xehatuak (56.1.e artikulua) eta lerrokadurak (56.1.h artikulua) ezartzen dira, eta antolamenduz kanpoko eraikuntza bat identifikatzen da (56.1.i artikulua). HAPOaren antolamendu xehatuko zehaztapenak direnez, zuzentzat jotzen da HAPB bidez aldatzea (70. artikulua).

Bi EU berrietako bakoitza nagusiki dentsitate ertaineko familia bakarreko etxe isolatuaren erabilera duten bi lurzatik osatzen dute, guztira 4 lurzati berrikin, HAPOan proposatutako 7 lurzatien aldean. Lurzatietatik hirutan familia bakarreko 3 etxe baimentzen dira, eta laugarrenean, berriz, 2; guztira 11 etxe. Lurzati bakoitzeran higiezin konplexu bat eratu behar da eraikinen elementu komunak eta pribatiboak definitzeko. Eraikigarritasun fisikoak honako hauek dira: AI-R01ean (6 etxe), 1290m<sup>2</sup>t sestratik gora eta 600m<sup>2</sup>t sestratik behera, eta AI-R02an (5 etxe), 900m<sup>2</sup>t sestratik gora eta 780m<sup>2</sup>t sestratik behera. Dokumentuak justifikatzen du EU berrien batez besteko hirigintza eraikigarritasuna ez dela AR-18 (a) arearen ehuneko 5 baino handiagoa, 2/2006 LHLren 144.2 artikuluaren arabera; izan ere, aldeak txikiagoak dira: ehuneko 0,83 EU-01en eta ehuneko 0,61 EU-02n.

Memorian ongi justifikatzen da hiri lurzoru finkatugaberako estandarrak betetzen direla, Hirigintzako Estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuaren arabera.

Lurzatien lerrokadurak 3 metrokoak dira mugekiko, eta 12 metrokoak errekaren ibilguarekiko.

Horrekin guztiarekin, uste da proposatutako HAPBa bat datorrela HAPOarekin, eta bete egiten dituela 2/2006 Legean eta 123/2012 Dekretuan jasotako zehaztapenak.

**Laugarrena.- Ingurumen txosten estrategikoa**

5. apartatuan (“Ondorioak, ingurumen baldintzak”) adierazten da ezen ingurumen dokumentu estrategikoaren 10. apartatuan (“Prebentzio neurrien proposamena, neurri zuzentzaileak klima aldaketa kontuan hartuta”) jasotzen diren neurri babesle eta zuzentzaileak HAPBan sartu beharko direla. Era berean, jaso beharreko zenbait neurri zerrendatzen ditu.

Adierazitakoa dokumentu teknikoari erantsi zaio.

**Bosgarrena.- Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena (EKH)**

2025eko maiatzaren 9an sinatu, eta hasierako onespenerako aurkeztutako dokumentuaren aldeko txostena egin zuen, jabari publiko hidraulikoaren babesari eta korronteen araubideari dagokienez. Era berean, ezartzen du ez dela egin behar eskari hidriko berriei buruzko txostenik, ez baitira sortzen.

Horren ondorioz, HAPBa bat dator Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostenarekin.

Horrenbestez, dagozkidan ahalmenak erabiliz, eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako hau

**XEDATZEN DUT**

Lehenengoa. Behin betiko onespina ematea Gaubeako udalerriko Villanañeko AI-R01, AI-R02, AI-R03, AI-R04, AI-R09, AI-R10 eta AI-R11 eremuko hiri antolamendurako plan bereziari.

Bigarrena. Plana Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.


Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea hirigintzako araudiarekin batera.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekursoa aurkeztu daiteke zuzen-zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.


Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 1a

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua  
LAURA PÉREZ BORINAGA*

Gaubeako udalerriko Villanañeko AI-R01, AI-R02, AI-R03, AI-R04, AI-R09, AI-R10 eta AI-R11 eremuko hiri antolamendurako plan bereziaren espedientearen behin betiko onespina Arabako hirigintza plangintzaren administrazio erregistroan inskribatu da, 2025eko uztailaren 1ean, 2025/22 erregistro zenbakiarekin.







HIRIGINTZA-ANTOLAMENDU XEHATUKO ZEHAZTAPENAK

ERAIKIGARRITASUNA

Al-RO1	JUE	3075 m <sup>2</sup>	2540 m <sup>2</sup>	1660 m <sup>2</sup>	0,6535 m <sup>2</sup> m <sup>-2</sup>
jardíuela a literalua.....	.....	.....	.....	.....	.....
ejkaltze-unatara.....	.....	.....	.....	.....	.....
erakigintasunaren lbuloko azalea.....	.....	.....	.....	.....	.....
enabiera n agusia.....	.....	.....	.....	.....	.....
barehiko erakitea (sa).....	.....	.....	.....	.....	.....
erejitzitzia kopuria, guztira.....	.....	.....	.....	.....	.....
erejitzitzia libeoa eta lebeitz-kopurua.....	.....	.....	.....	.....	.....
erejitzien publikoko erejitzitzia-kopurua.....	.....	.....	.....	.....	.....
erakigintasunaren haztuna guztira.....	.....	.....	.....	.....	.....
erakigintasunaren haztuna guztira.....	.....	.....	.....	.....	.....
batez besteko erakigintasun.....	.....	.....	.....	.....	.....
familia bakarreko eku-socialea - densitatea etanbera.....	5	5	5	0	0
Txotologia kolektiboa en eginen Tasabek Bera.....	5	5	5	0	0

Oro har, partzelatza eta erakuntza baldintzak, erabilien bateagarrasuna, erakuska eta esleia baldintzak eta fina honekaren araztu eta edo bestea edozten zeharla estulitza. Kalkulu xehabera araztu orokrean ezantziakotzat dira. Gaubeao hiri antolamendurako plan orokorraren denbilatza: familia bakareko etikobizitzaz eta fina-solitua.

EGIKARTZE-BALDINTZAK

élménye.....	egy karriere-skámena	egy karriere-testra	járdafele-sísszene	lehetősüsség	járdafele hasira emelteko speek egykarriere epeak	egykarriere epeak
.....építkezési próbába	.....partikularák	.....Higirintzó jarduvea programok	.....iuntze-e Sísteemá lehetségekkel	.....ex. da eazrin	.....4 ute	.....HJPk eazrimo dílt, hala bádogok
.....építkezési próbába	.....partikularák	.....Higirintzó jarduvea programok	.....iuntze-e Sísteemá lehetségekkel	.....ex. da eazrin	.....4 ute	.....HJPk eazrimo dílt, hala bádogok
.....építkezési próbába	.....partikularák	.....Higirintzó jarduvea programok	.....iuntze-e Sísteemá lehetségekkel	.....ex. da eazrin	.....4 ute	.....HJPk eazrimo dílt, hala bádogok
.....építkezési próbába	.....partikularák	.....Higirintzó jarduvea programok	.....iuntze-e Sísteemá lehetségekkel	.....ex. da eazrin	.....4 ute	.....HJPk eazrimo dílt, hala bádogok

卷之三

Aholámeno-planoetan adierazitako eraikina antolämendutik kanpo geratzen da, 89 m<sup>2</sup>-ko solairuarekin

1000

**egizantzen buruzko arai-zeraztunak**

Lurzuk bokatzean hizkuntza korpusetan behariko da, zinemendik bidez  
lurzunaren elementu komiguneak eta pribatua definitu balira. Alternatiba  
eta, egizantzen unitatea bakotzeareka eta erakarpenaren arabera  
adina lurzatzeko denean, atal eta garaia dira, eta urtez urte  
pribatuan eta arauzko deimena da. Hiruzalek eta eraikinek bide publikoak  
zango zutela berazitzatzen.

TOKIKO SISTEMEI BI | BI | ZKO ŽEHAZZTAPENAK

BIDEBA GABBITASI IN EKONOMIKOA

geliene luoztu-eragina eta onartutako urbanizazioa:	metakal- oritario zaharrapena (eurak)	lurzoruan eragina eta onartutako urbaburua (eurak)	jaduean garatu era era etan %
900	738	1.000 1.000.000	104.400 10.000 %

azalea

Espazio lueteri urbanizazioa	484	86	41.14%
Bideen eta bestelakoen urbanizazioa	0	0	0
Urbanizazioa egiteko zenbategiak kostua			
Lurzoruan balio zerbitzaera (euro/m <sup>2</sup> )			
Jarduketaren garapen-kostuen zenbaletxoa (euros)	101.600	101.600	142.740
Lurzor-eraginaren eta urbanizazioaren etuneko zenbatasoa			13.32 %

Digitized by srujanika@gmail.com

1

A lurzatiko aparkalekuak: 8  
A lurzatiko zuhaitzak: 10  
B lurzatiko aparkalekuak: 5  
B lurzatiko zuhaitzak: 7